



*Kale Dor Kayiko sarien emanaldia*

## **Kale Dor Kayiko Bizkaiaren sariak banatu dira hamabigarrenez Deustuko Unibertsitatean**

Unibertsitatean izan zen ekainaren 21ean, 12. Kale Dor Kayiko Bizkaiaren sarien banaketa, Psikologia eta

Hezkuntza Fakultatea laguntzaile dela. Kale dor Kayiko (Etorkizuneko ijitoak) euskal elkarteak urtero ematen dizkie sariak hezkuntzako edozein etapatako titulazioren bat lortu duten ikasle ijitoei. Ekimenaren asmoa da ijitoak ikasten jarrai dezaten animatzea, DBHtik aurrera ere.